arrigorriaga
UDALA - AYUNTAMIENTO

EUSKARAREN ERABILERA SUSTATU ETA NORMALIZATZEKO U D A L A R A U D I A

Sarrera

Euskeraren Erabilpena Arauzkotzezko azaroaren 24ko 10/1982 Oinarrizko Legeak dioenarekin bat, euskara eta gaztelania dira Euskal Autonomia Erkidegoko hizkuntza ofizialak, eta erkidegoko herritar guztiek badute hizkuntza ofizial biak jakin eta ahoz zein idatziz erabiltzeko eskubidea.

Bestalde, hizkuntza dela-eta inork bereizkeriarik jasan ez dezan, lege orokorrek Euskadiko Autonomia Erkidegoko herri-aginteei esleitzen diete, haien eskumenen esparruan, bai hizkuntza ofizial bien erabilera bermatu eta arautzeko eskumena, bai eta jakintza eta normalizazioa bizkortzeko neurriak ezartzeko ahalmena ere.

Hortaz, indarreko legeria oinarri harturik, [B ereduko] Udalak, herritarren hizkuntz eskubideak bermatu eta hizkuntz egoera normalizaturantz abiatzeko beharrezko urratsak egin gura dituela, ontzat ematen du Euskararen Erabilera Sustatu eta Normalizatzeko Araudi hau indarrean jartzea, bertan jasotzen baitira udalak barne jardunbidean, herritarrekiko eta beste instituzio edo erakunde ofizialekiko harremanetan eta gizarte-bizitzan euskararen erabilera suspertzeko eta normalizatzeko bete beharreko arauak.

NORMATIVA MUNICIPAL DE PROMOCIÓN Y NORMALIZACIÓN DEL USO DEL EUSKERA

Introducción

Conforme a lo establecido en la Ley 10/1982, de 24 de noviembre, de normalización del uso del euskera, el euskera y el castellano son las lenguas oficiales de la Comunidad Autónoma Vasca, y todos los ciudadanos de dicha comunidad tienen derecho a conocer ambas lenguas y a utilizarlas en las relaciones tanto orales como escritas.

Por otra parte, a fin de que ninguna persona sea discriminada por razón del idioma, las leyes generales confieren a los poderes públicos de la Comunidad Autónoma Vasca, dentro del ámbito de sus competencias, la potestad de garantizar y regular el uso de las dos lenguas oficiales, así como la facultad de disponer las medidas necesarias para promover su conocimiento y normalización.

Así, tomando como base la legislación general, el Ayuntamiento de Arrigorriaga con el firme propósito de garantizar los derechos lingüísticos de los ciudadanos y de dar los pasos pertinentes hacia una situación lingüística normalizada, aprueba la puesta de vigor de esta *Normativa Municipal de Promoción y Normalización del Uso del Euskera*, puesto que en ella se definen las normas por las que esta administración local debe regirse en aras a normalizar los usos lingüísticos tanto en su funcionamiento interno como en las relaciones con los ciudadanos, con otras instituciones u organismos oficiales, así como en la vida social del municipio.

1. ATALBURUA

XEDAPEN OROKORRAK

1. artikulua – Euskara, Euskal Herriko berezko eta jatorrizko hizkuntza eta haren nortasun ezaugarri nagusia den aldetik, Arrigorriagako herritarren eta udalerri honen ondare kulturalaren ukaezinezko atala da.

2. artikulua – Euskara eta gaztelania, Euskal Autonomia Erkidegoko hizkuntza ofizialak, Arrigorriagako udalerriaren eta Arrigorriagako udal administrazioaren hizkuntza ofizialak dira.

3. artikulua – Hizkuntza ofizialen erabilerari –eta bereziki euskararenari– dagokionez, Arrigorriagako Udala eta haren menpeko organo eta erakundeak indarreko legeriari eta araudi honetako xedapenei lotuko zaizkie, barne jardunbidean nahiz administratuekiko hartu-emanetan edo udalerriko ekimenetan.

Era berean, hizkuntza ofizialen erabilerari dagokionez –batik bat, euskararen erabilerari dagokionez–, udal zerbitzuak betetzen dituzten enpresek men egingo diote indarreko lege orokorrek eta araudi honek xedatzen dutenari, udalaren zerbitzua betetzean administrazioarekin nahiz herritarrekin sortzen diren harreman guztietan.

4. artikulua – Euskaraz bizi edo jardun nahi duten herritarren hizkuntz eskubide eta aukera errespetatu eta, aldi berean, udalerriko esparru guztietan euskararen berreskurapena eta normalizazioa areagotzeko, Arrigorriagako

CAPÍTULO PRIMERO

DISPOSICIONES GENERALES

Artículo 1 – El euskera, la lengua propia y original del País Vasco y su principal seña de identidad, forma parte incuestionable del patrimonio cultural del municipio de Arrigorriaga y de sus ciudadanos y ciudadanas.

Artículo 2 – El euskera y el castellano, las lenguas oficiales de la Comunidad Autónoma Vasca, son las lenguas oficiales del Ayuntamiento de Arrigorriaga y de su administración municipal.

Artículo 3 – El Ayuntamiento de Arrigorriaga y los órganos y entidades dependientes del mismo actuarán según lo establecido en las leyes generales vigentes y de acuerdo a las disposiciones contenidas en esta normativa en todo lo referente al uso de las lenguas oficiales –y especialmente al uso del euskera–, tanto en su funcionamiento interno como en las relaciones con los ciudadanos y en las actuaciones municipales.

Del mismo modo, las empresas prestadoras de servicios municipales deberán respetar lo establecido en las leyes generales vigentes y en esta normativa en todo lo referente al uso de las lenguas oficiales –y especialmente al uso del euskera– en las relaciones que como consecuencia del servicio municipal prestado surjan con la administración municipal y con los ciudadanos.

Artículo 4 – Con objeto de impulsar la recuperación y la normalización del euskera en todos los ámbitos y, al mismo tiempo, respetar la opción de los ciudadanos que deseen realizar su vida cotidiana en euskera, el Ayuntamiento de

Udalak euskararen aldeko hizkuntza politika sustatu, zehaztu eta garatuko du.

5. artikulua **–** Arrigorriagako Udalak eremu bereizi biren arabera zehaztu, antolatu eta gauzatuko du bere hizkuntza politika: udal administrazioa eta udalerria. Udalak eremu bakoitzeko helburu, neurri, erritmo eta baliabiderik egokienak finkatuko ditu, hizkuntz egoera eta beharrizanak aztertu ostean.

Arrigorriaga promoverá, diseñará y desarrollará una política lingüística a favor del euskera.

Artículo 5 **–** El Ayuntamiento de Arrigorriaga determinará, planificará y llevará a cabo su política lingüística atendiendo a dos ámbitos diferenciados: administración municipal y municipio. El ayuntamiento establecerá los objetivos, medidas, ritmos y recursos apropiados en cada caso, después de analizar la situación sociolingüística y las necesidades municipales.

2. ATALBURUA

EUSKARAREN NORMALIZAZIOA UDAL ADMINISTRAZIOAN

CAPÍTULO SEGUNDO

NORMALIZACIÓN DEL EUSKERA EN LA ADMINISTRACIÓN MUNICIPAL

6. artikulua **–** Euskararen erabilera eta normalizazioa arautzen duen indarreko legeriari jarraituz, Arrigorriagako Udalaren administrazioko hizkuntz normalizazio prozesuaren hiru oinarri nagusiak honakoak izango dira: administrazio egintza eta harremanen eskaintza euskaraz bermatzea, lanpostuen hizkuntz eskakizunak eta derrigorrezko datak esleitzea, eta euskararen erabilera normalizatzeko plana onartu eta garatzea.

Artículo 6 **–** En virtud de la legislación vigente en materia de uso y normalización del euskera, el proceso de normalización lingüística del Ayuntamiento de Arrigorriaga tendrá tres pilares fundamentales: garantizar el uso del euskera en las acciones y relaciones administrativas, asignar los perfiles lingüísticos correspondientes y, en su caso, fechas de preceptividad a los puestos de trabajo, y aprobar y desarrollar el plan municipal de normalización de uso del euskera.

2.1. ADMINISTRAZIO EGINTZAK ETA JARDUERAK

2.1. ACTOS Y ACTUACIONES ADMINISTRATIVAS

7. artikulua **–** Euskarak Arrigorriagako udal administrazioaren zerbitzu hizkuntza –eta, hala badagokio, lan hizkuntza– izan behar du. Udaleko lanpostuetan barruko zereginak zeinahi hizkuntzatan betetzen direla ere, administratuei zuzenduriko edo administratuekin lotutako administrazio egintza eta jarduera guztiak euskaraz ere eskaini eta burutu beharko dira.

Artículo 7 **–** El euskera debe ser lengua de servicio –o en su caso, lengua de trabajo– de la administración municipal del Ayuntamiento de Arrigorriaga Independientemente de la lengua en que se realicen las tareas inherentes a los puestos de trabajo municipales, todos los hechos de carácter administrativo y todas las actividades dirigidas a los administrados deberán ofrecerse y realizarse también en euskera.

2.1.1. Udalaren idazkun, errotulu eta seinaleak

2.1.1 Inscripciones, rótulos y señales

municipales

8. artikulua **–** Arrigorriagako Udalaren arlo, sail, bulego eta lanlekuetan ikusten eta erabiltzen diren idazkun guztiak ele bietan agertuko dira:

a) Bulego eta langeletako errotuluak eta bestelako adierazleak.

b) Udalaren orri, inprimaki eta dokumentu guztien idazpuruak.

b) Gomazko zigiluak, seiluak eta antzeko tresnak.

d) Udal langileen jantzietan txertatutako idazkunak.

e) Udalaren ibilgailu, garraio eta makineriako idazkunak.

9. artikulua **–** Kale eta auzoen izenak agertzen dituzten plakak, trafiko seinaleak, bide eta zeharbideen adierazgarriak eta, oro har, udalak jarritako herri-bideko iragarpen guztiak hizkuntza ofizial bietan idatziko dira, betiere ulergarritasuna eragotzi barik eta nazioarteko arauei jaramon eginez.

Artículo 8 **–** Todas las inscripciones visibles que se utilizan en las diferentes áreas, departamentos, oficinas y dependencias del Ayuntamiento de Arrigorriaga aparecerán en forma bilingüe:

a) Rótulos e indicadores similares de oficinas y despachos.

b) Membretes de hojas, impresos y documentos del Ayuntamiento.

c) Sellos de goma, timbres sellados y elementos similares.

d) Inscripciones serigrafiadas en la ropa de trabajo del personal municipal.

e) Inscripciones en los vehículos, vehículos de transporte y maquinaria municipales.

Artículo 9 **–** Las placas que indican nombres de calles o barrios, señales de tráfico, indicadores de caminos, travesías y, en general, todas las señales visibles en las vías municipales deberán aparecer en ambas lenguas oficiales, respetando siempre la comprensibilidad del mensaje y atendiendo a las normas internacionales.

2.1.2. Udal erregistroko agiriak

10. artikulua **–** Azaroaren 24ko 10/1982 Oinarrizko Legeak agintzen duen legez, udaletxera sartzen eta udaletxetik ateratzen diren agiriak jatorriz idatzita dauden hizkuntzan edo hizkuntzetan inskribatuko dira udal erregistroan.

11. artikulua **–** Udal erregistroak egiten dituen ziurtagiriak eta bestelako agiriak euskaraz eta

2.1.2. Documentación de los registros municipales

Artículo 10 **–** De acuerdo a lo dispuesto en la Ley 10/1982, los documentos a los que se de entrada o salida en el ayuntamiento serán inscritos en el Registro Municipal en la lengua o lenguas en la(s) que se hallen escritos.

Artículo 11 **–** Todas las certificaciones y demás documentos proporcionados por el Registro

gaztelaniaz idatziko dira.

2.1.3. Administratuekiko harremanak

12. artikulua **–** Euskeraren Erabilpena Arauzkotzezko 10/1982 Legeak arautzen duenarekin bat, udal administrazioarekiko harremanei dagokienez, Arrigorriagako Udalak honako oinarrizko hizkuntz eskubideok aintzatesten dizkie bere administratuei:

a) Udalarekin eta haren menpeko edozein erakunderekin euskarazko ahozko eta idatzizko harremanak izateko eskubidea.

b) Bai udalaren argitalpenak bai udalak egunkari, aldizkari, irrati eta beste edozein komunikabidetan argitara ematen dituen jakinarazpen eta xedapen guztiak euskaraz jasotzeko eskubidea.

c) Udalaren osoko bilkura eta batzarretan euskaraz egiteko eskubidea.

d) Udalak antolatzen, kudeatzen edo bultzatzen dituen ikasketak euskaraz egiteko eskubidea.

13. artikulua **–** Euskaraz eta gaztelaniaz egingo dira egoitza Euskal Autonomia Erkidegoan, Nafarroako Foru Erkidegoan eta euskararen gainerako lurraldeetan daukaten pertsona fisiko zein juridikoentzako berri-emate eta agiri guztiak; hala ere, interesdun pribatuek beren beregi Euskal Autonomia Erkidegoko hizkuntza ofizialetako bakarrean jasotzea hautatzen badute, hala egingo da.

14. artikulua **–** Udal administrazioak ontzat hartu beharko ditu pertsona fisiko nahiz juridiko eta pribatuengandik jasotzen dituen euskara edo gaztelania hutsezko berri-emate eta

Municipal serán expedidos en euskera y castellano.

2.1.3. Relaciones con los administrados

Artículo 12 **–** Conforme a lo establecido en la Ley 10/1982, Básica de Normalización del Uso del Euskera, el Ayuntamiento de Arrigorriaga reconoce los siguientes derechos lingüísticos a sus administrados, en todo lo relativo a las relaciones con la administración municipal:

a) Derecho a relacionarse en euskera oralmente y/o por escrito con la administración municipal y con cualquier organismo dependiente de ella.
b) Derecho a recibir en euskera todas las publicaciones periódicas municipales, así como cualquier otra comunicación o resolución que el ayuntamiento publique o difunda en periódicos, revistas, radios o cualquier otro medio de comunicación.
c) Derecho a expresarse en euskera en cualquier reunión municipal.
d) Derecho a recibir en euskera cualquier tipo de enseñanza organizada, gestionada o promovida por el ayuntamiento.

Artículo 13 **–** Toda la documentación que el Ayuntamiento de Arrigorriaga envíe a personas físicas o jurídicas con domicilio en la Comunidad Autónoma Vasca, Comunidad Foral de Navarra o en los demás territorios del euskera será redactada en euskera y castellano, salvo que los interesados privados elijan expresamente la utilización de una de las lenguas oficiales de la Comunidad Autónoma del País Vasco.

Artículo 14 **–** El Ayuntamiento de Arrigorriaga aceptará todas las comunicaciones y documentos de personas físicas y jurídicas redactadas únicamente en una única lengua oficial.

agiri guztiak.

15. artikulua **–** Inprimaki guztiak hizkuntza ofizial bietan eskainiko dira, ahal den guztietan, ale bereizietan.

2.1.4. Instituzio edo erakunde ofizialekiko harremanak

16. artikulua **–** Arrigorriagako Udalak dokumentazio guztia hizkuntza ofizial bietan bidaliko die Euskal Autonomia Erkidegoko, Nafarroako Foru Erkidegoko eta euskararen gainerako lurraldeetako herri-administrazio eta erakunde ofizialei.

2.1.5. Udalaren ebazpenak eta argitalpenak

17. artikulua **–** Udalaren bandoak, araudiak, ordenantzak, edozein motatako ebazpen eta erabakiak, iragarkiak eta, oro har, jendaurreko argitalpen guztiak hizkuntza ofizial bietan argitaratuko dira. Bestalde, udalaren web orri, aldizkari, berripaper, gida eta antzeko argitalpenetan euskararen erabilera gaztelaniaren parekoa izan dadin bermatu beharko da.

2.1.6. Batzarrak eta aktak

18. artikulua **–** Arrigorriagako Udalaren osoko bilkuretan, gobernu batzordearen batzarretan edo informazio batzordeen batzarretan, partaideek nahi duten hizkuntza ofiziala erabili ahal izango dute, eta hala jakinaraziko die organoko arduradunak. Behar izatekotan, organo bakoitzak aztertu eta erabakiko du zein bitarteko baliatu hizkuntza dela-eta bileraren funtzionamendua oztopatu ez dadin, eta kide guztien adierazpenak modu zehatzean entzun eta jaso daitezen.

Artículo 15 **–** Todos los impresos municipales se ofrecerán en ambas lenguas, a ser posible, en ejemplares separados.

2.1.4. Relaciones con instituciones u organismos oficiales

Artículo 16 **–** El Ayuntamiento de Arrigorriaga enviará la documentación en ambas lenguas oficiales a todas las administraciones públicas y organismos oficiales de la Comunidad Autónoma Vasca, Comunidad Foral de Navarra y demás territorios del euskera.

2.1.5. Resoluciones municipales y publicaciones

Artículo 17 **–** Los bandos, normativas, ordenanzas, resoluciones de todo tipo, acuerdos, anuncios municipales y, en general, todas las comunicaciones públicas, se difundirán en ambas lenguas oficiales. Por otra parte, se garantizará que el uso del euskera sea análogo al del castellano en páginas web, revistas, hojas informativas, guías y publicaciones similares realizadas por el ayuntamiento.

2.1.6. Reuniones y actas

Artículo 18 **–** Los participantes en plenos, reuniones de la comisión de gobierno o reuniones de comisiones informativas del Ayuntamiento de Arrigorriaga podrán utilizar la lengua oficial que elijan para expresarse, y así se lo hará saber el responsable de cada órgano. Si es necesario, cada órgano analizará y decidirá que medios se han de emplear para que, por motivos de idioma, no se obstaculice funcionamiento de la reunión y se recojan fielmente las manifestaciones de todos los participantes.

19. artikulua – Arrigorriagako Udalaren osoko bilkuretarako nahiz gobernu batzordeetarako deialdiak eta aktak hizkuntza ofizial bietan argitaratuko dira.

20. artikulua – Udalaren informazio batzordeetarako deialdiak eta aktak batzorde bakoitzaren ohiko hizkuntzan idatziko dira. Hala ere, pertsona, erakunde edo elkarteren batek deialdiak eta aktak beste hizkuntza ofizialean edo ele bietan jaso gura baditu eta idatziz hala eskatzen badu, batzordeak erabakiko du zein bitarteko jarri haren hizkuntz eskubideak berma daitezen.

2.2. UDAL LANGILEAK ETA UDAL ATALAK EUSKALDUNTZEA

2.2.1. Langileen euskalduntzea eta trebakuntza

21. artikulua – Euskadiko Funtzio Publikoari buruzko Legeak eta 86/1997 Dekretuak xedatutakoa betez, Arrigorriagako Udalak taxuzko neurriak hartuko ditu bere zerbitzupean lan egiten duten pertsonek euskaraz jarduteko gaitasun egokia lor dezaten. Horretarako, udalak langileen euskalduntzea eta trebakuntza bultzatu eta erraztuko ditu.

2.2.2. Hizkuntz eskakizunak eta derrigorrezko datak

22. artikulua – 86/1997 Dekretuak araututakoa betetzeko, Arrigorriagako udal administrazioko lanpostu bakoitzari hizkuntz eskakizuna esleituko zaio eta, hala badagokio derrigortasun-data ere bai, betiere dekretu

Artículo 19 – Las convocatorias de plenos y comisiones de gobierno del Ayuntamiento de Arrigorriaga y las actas correspondientes se publicarán en las dos lenguas oficiales.

Artículo 20 – Las convocatorias y actas de las comisiones informativas municipales se redactarán en la lengua habitual de dicha comisión. De todos modos, si alguna persona, entidad o asociación desea recibirlas en la otra lengua oficial o en bilingüe, formulando para ello la petición por escrito, la comisión decidirá que medios utilizar para garantizar los derechos lingüísticos del solicitante.

2.2. EUSKALDUNIZACIÓN DEL PERSONAL Y LAS SECCIONES MUNICIPALES

2.2.1. Euskaldunización y formación del personal

Artículo 21 – En cumplimiento de lo dispuesto por Ley 6/1989, de la Función Pública Vasca, y del Decreto 86/1997, regulador del proceso de normalización del uso del euskera en las administraciones públicas de la Comunidad Autónoma Vasca, el Ayuntamiento de Arrigorriaga adoptará las medidas oportunas para que las personas que trabajen al servicio del ayuntamiento adquieran la capacidad lingüística adecuada para ejercer sus funciones en euskera. Para ello, el ayuntamiento impulsará y facilitará la euskaldunización y la formación del personal.

2.2.2. Perfiles lingüísticos y fechas de preceptividad

Artículo 22 – En cumplimiento del Decreto 86/1997, el Ayuntamiento de Arrigorriaga asignará el Perfil Lingüístico (PL) correspondiente a cada puesto de trabajo, así como, en su caso, la fecha de preceptividad.

horrek ezarritakoekin bat.

Lanpostuen hizkuntz eskakizunak eta, hala badagokio, derrigortasun-datak udalak urteko aurrekontuekin batera eman beharreko lanpostu zerrendako zehaztapenetan ageriko dira.

El perfil lingüístico asignado a cada puesto de trabajo y, en su caso, la fecha de preceptividad, deberá incorporarse dentro de las especificaciones que han de figurar en la relación de puestos de trabajo que el ayuntamiento publica junto a los presupuestos anuales.

2.2.3. Udalaren atal elebidunak eta udalaren euskara plana

23. artikulua **–** 86/1997 Dekretuari jarraituz, Arrigorriagako Udalak euskararen erabilera normalizatzeko plana diseinatu, onartu eta gauzatu beharko du. Modu berean, administrazio atalen sailkapena egin eta, erakundearen hizkuntz helburuen arabera, zenbait administrazio atal elebidun izendatuko ditu.

2.2.3. Unidades administrativas bilingües y plan de euskera

Artículo 23 **–** En cumplimiento de lo establecido en el Decreto 86/1997, el Ayuntamiento de Arrigorriaga deberá aprobar y llevar a cabo el plan de normalización del uso del euskera. Del mismo modo, realizará la clasificación de las unidades administrativas y establecerá las unidades administrativas bilingües, en función de los objetivos lingüísticos de la entidad.

2.2.4. Udal langileen eta zerbitzuen kontratazioa

24. artikulua **–** Udal langileen kontratazio politikaren bidez, Arrigorriagako Udalak bultzada emango dio erakundeko hizkuntz normalizazio prozesuari, batez ere, euskalduntzearen beharrizanik handiena duten atalei dagokienez. Horrela, bada, jendaurreko administrazio-unitateetan nahiz gizarte-izaerako ataletan edozein lanpostu sortzean, kontratu mota edozein dela ere, hizkuntz eskakizuna egiaztatu beharko da.

2.2.4. Contratación de servicios y de personal municipal

Artículo 24 **–** El Ayuntamiento de Arrigorriaga impulsará el proceso de normalización lingüística mediante una política de contratación adecuada, incidiendo especialmente en las áreas que tengan mayor necesidad de euskaldunización. Así, al crear un puesto de trabajo en las unidades administrativas de atención al público o en las que tengan carácter social, independientemente del tipo de contrato, deberá acreditarse el perfil lingüístico correspondiente.

25. artikulua **–** Aurreko artikuluan aipatutako administrazio ataletakoak ez diren lanpostuak betetzerakoan, euskara merezimendua izango da hautespen probetan, eta puntuazio osoan 86/1997 Dekretuak ezartzen duen portzentajea izango du, ondoko eran:

Artículo 25 **–** A la hora de cubrir un puesto de trabajo que no corresponda a las unidades administrativas mencionadas en el artículo anterior, el euskara se ponderará como mérito en las pruebas de selección, y computará en la puntuación global del proceso selectivo del

siguiente modo, conforme a lo establecido en el Decreto 86/1997:

1. HE eta 2. HE: %10; 3. HE eta 4. HE: %20

PL1 y PL2: 10%; PL3 y PL4: 20%

26.- artikulua – Aldi baterako lanak egiteko lan-kontratuko beharginak aukeratzeko deialdietan, euskaraz jakitea eskatu edo balioetsiko da, betiere 86/1997 Dekretuaren bosgarren xedapen gehigarrian finkatutakoari jarraituz.

Artículo 26 – En las convocatorias de selección de personal para ejercer trabajos de duración temporal con contrato laboral, se exigirá o valorará el conocimiento del euskera, siempre atendiendo a los preceptos dados en la disposición adicional quinta del Decreto 86/1997.

Gerta daiteke hirugarren batek zerbitzuak eman behar izatea udalaren ordez, eta horietan herritar edo erabiltzaileekin zuzeneko hartu-emanak eduki behar izatea. Halakoetan, zerbitzu-emaileak bete beharko ditu udalari dagozkion hizkuntza-beharkizun berberak, eta hala jasoko da beren beregi administrazio-klausula berezien pleguan.

Puede suceder que un tercero ofrezca servicios de competencia municipal y que en dichos servicios tenga relación directa con los usuarios. En dichos casos, la empresa encargada de efectuar el servicio deberá cumplir los mismos requisitos lingüísticos que se le exigen a la administración y así se hará constar expresamente en el pliego de cláusulas administrativas particulares

27. artikulua – HAEEk kasuan-kasuan erabakiko du euskarari buruzko ebaluazio-proben era eta edukia zelakoak izango diren.

Artículo 27 – El Instituto Vasco de Administración Pública (HAEE-IVAP) decidirá en cada caso la forma y contenido de las pruebas de evaluación de conocimiento del euskera.

3. ATALBURUA

EUSKARAREN ERABILERA UDALERRIAN

CAPÍTULO TERCERO

USO DEL EUSKERA EN EL MUNICIPIO

28. artikulua – Arrigorriagako Udalak beharrezko neurri eta bitartekoak jarriko ditu udalerrian euskararen hedapen demografiko, geografiko eta funtzionala bultzatu eta lortzeko.

Artículo 28 – El Ayuntamiento de Arrigorriaga adoptará las medidas oportunas para promover la difusión del euskera en los ámbitos demográfico, geográfico y funcional.

29. artikulua – Arrigorriagako euskaldunen kopurua %26,3koa izanik, udalak ahaleginak egingo ditu helburu bi jadestearren: 1) herritar euskaldunen kopurua handitzea; 2) herritar

Artículo 29 – Puesto que el porcentaje de euskaldunes del municipio de Arrigorriaga es del 26,3 % las actuaciones municipales se encaminarán primordialmente a conseguir dos

euskaldunei euskarazko zerbitzuak eskaintzea, gizarteko hainbat esparrutan euskaraz jardun eta, ahal den neurrian, euskaraz bizi izan daitezen. Hori guztia egingo du, erabileran arreta berezia jarriz eta familiak plangintzetan sartuz.

objetivos: 1) aumentar el número de hablantes euskaldunes; 2) ofrecer a los ciudadanos euskaldunes servicios en euskera para que puedan utilizarlo en diversos ámbitos sociales y, en la medida de lo posible, puedan vivir en euskera. Para conseguir dichos objetivos se incidirá especialmente en el uso y se tendrán en cuenta las familias en las planificaciones.

30. artikulua **–** Goiko artikuluan zehaztutako helburuak modurik sistematizatu eta eraginkorrenean lortu ahal izateko, Arrigorriagako Udalak udalerrian euskara berreskuratu eta normalizatzeko plan estrategikoa diseinatu, onartu eta garatuko du, Euskara Biziberritzeko Plan Nagusiko [B1/B2] ereduaren jarduera-lerroei jarraituz.

Artículo 30 **–** Al objeto de alcanzar los objetivos expresados en el artículo anterior de modo sistemático y efectivo, el Ayuntamiento de Arrigorriaga diseñará, aprobará y desarrollará el plan de recuperación y normalización del euskera en el municipio siguiendo los criterios expuestos en el modelo [B1/B2] del Plan General de Promoción del Uso del Euskera.

31. artikulua **–** Arrigorriagako Udalaren udalerri mailako plan estrategikoak berebiziko garrantzia emango die Euskara Biziberritzeko Plan Nagusiak euskaldun kopuru txiki-ertaineko udalerrientzat lehenesten dituen gizarteko jardute-esparruei: irakaskuntzari, helduen alfabetatze eta euskalduntzeari, euskararen ondorengoetaratzeari familia bidez, administrazioari, aisiari, komunikabideei eta kulturgintzari. Hala eta guztiz ere, planak euskararen sustapena jorratu ahal izango du beste zenbait esparrutan ere: teknologia berrietan, lan munduan, kirolean, erlijioan, euskararen corpusean, liburugintzan eta publizitatean.

Artículo 31 **–** El plan estratégico municipal del Ayuntamiento de Arrigorriaga tendrá especialmente en cuenta los ámbitos de actuación prioritarios del Plan General de Promoción del Uso del Euskera para los municipios con densidad baja-media de euskaldunes: enseñanza, euskaldunización y alfabetización de adultos, transmisión familiar del euskera, administración, ocio, medios de comunicación y producción cultural. Aún así, el plan municipal podrá promover el euskera en otros ámbitos distintos: nuevas tecnologías de la información y la comunicación, el mundo laboral, deporte, religión, corpus del euskera, producción literaria y publicidad.

4. ATALBURUA

UDALAREN AZPIEGITURA

CAPÍTULO CUARTO

INFRAESTRUCTURA MUNICIPAL

32. artikulua **–** Araudi hau modurik eraginkorrenean gauzatu eta garatzeko beharrezkoak diren neurriak proposatu, aztertu eta abian jartze aldera Arrigorriagako Udalaren

Artículo 32 **–** A fin de proponer, analizar y poner en marcha las medidas convenientes para desarrollar esta ordenanza de la forma más efectiva, el Ayuntamiento de Arrigorriaga podrá

barne organigrama honelaxe era daiteke: euskara zinegotzigoa, euskara batzordea eta euskara normalizatzeko udal zerbitzu teknikoa:

a) Euskara zinegotzigoa euskararen berreskurapen eta normalizazioarekin zerikusia duten gaiez arduratzen den antolakunde politikoa dugu. Bi zeregin nagusi izan behar ditu: batetik, udalak hizkuntz politikaz hitzartutako akordioak, hartutako erabakiak eta onartutako planak aditzera eman eta betearaztea, eta, bestetik, euskara batzordea dinamizatu eta bizkortzea.

b) Euskara batzordea hainbat gizarte esparrutan euskararen normalizazioaren alde diharduten pertsonek, taldeek, elkarteek, gizarte-erakundeek eta ikastetxeek osatu behar dute. Beraren egiteko nagusia ondokoa izango da: euskararen normalizazio eta sustapenari dagozkion arlokako egitasmoak eta plangintzak zelan ezarri, zelan koordinatu eta zelan hobetu proposatu eta adostea.

c) Euskara normalizatzeko udal zerbitzu teknikoak, jendaurreko administrazio egintza eta jarduerak hizkuntza ofizial bietan agertzeko behar diren itzulpen eta testu-zuzenketekin arduratzeaz gain, administrazio nahiz udalerri eremuetan udalak planifikatutako hizkuntz politikako neurriak antolatu, koordinatu, gauzatu eta balioztatu beharko ditu. Orobat, euskara zerbitzua udalaren aholkularitza zerbitzu ofiziala izango da euskararen normalizazioaren inguruko gai tekniko guztietan, hala soziolinguistikoetan nola estandarizazio prozesukoetan.

constituir su organigrama interno de la siguiente forma: concejalía de euskera, comisión de euskera y servicio técnico municipal de normalización lingüística.

a) La concejalía de euskera es el órgano político responsable de todos los temas concernientes a la recuperación y normalización del euskera. Este organismo tiene dos tareas principales: por una parte, dar a conocer y hacer cumplir los acuerdos, resoluciones y planes aprobados por el ayuntamiento en materia de política lingüística, y por otra, dinamizar e impulsar la comisión de euskera.

b) La Comisión de Euskera agrupa a todas las personas, grupos, asociaciones, organizaciones sociales y centros educativos que trabajan por la normalización del euskera en el municipio. Su cometido principal es proponer, debatir y consensuar como implantar, coordinar y mejorar los proyectos sectoriales referentes a la normalización y promoción del euskera.

c) El Servicio técnico municipal de normalización lingüística se encargará de realizar o gestionar las traducciones o correcciones necesarias para que los actos y actuaciones administrativas se realicen en ambas lenguas oficiales. Además, llevará a cabo la organización, coordinación, puesta en marcha y valoración de las medidas de política lingüística planificadas por el ayuntamiento en los campos administrativo y municipal. Asimismo, el servicio de euskera será el órgano asesor del ayuntamiento en todas las cuestiones referidas a la normalización del euskera, tanto en su aspecto sociolingüístico como en los procesos de estandarización.

5. ATALBURUA

XEDAPEN GEHIGARRIAK

33. artikulua **–** Udalak etorkizunean ematen dituen ebazpenek eta udal arlo edo organoek abian ipintzen dituzten egitasmoek araudi honetan jasotako manuak errespetatu beharko dituzte.

Euskara arloko kargudun politikoa arduratuko da udal sail eta zerbitzu guztiei araudi honen indarrean jartzea jakinarazteaz, araudiaren xedapenei buruzko argibideak emateaz eta hizkuntz normalizazioa aintzat hartzearen garrantzia ulertarazteaz.

34. artikulua **–** Euskararen Erabilera Sustatu eta Normalizatzeko Araudi hau indarrean jarri eta bost urteren buruan udalak haren berrikuspen orokorra egingo du: emaitzak aztertu eta, beharrezkotzat joz gero, komenigarri diren aldaketak proposatuko ditu.

Dena dela, berrikuspena lehenago egin liteke, lege orokorretan zein egoera soziolinguistikoan aldaketak gertatuko balira, baita udalerriko euskararen berreskurapen eta normalizazio prozesuarentzat garrantzi handikoa izan litekeen beste edozein ziogatik ere.

6. ATALBURUA

XEDAPEN INDARGABETZAILEA

35. artikulua **–** Berez indargabetuta geratzen dira araudi honek xedatutakoarekin bat ez datozen maila bereko edo txikiagoko xedapen eta erabaki guztiak.

CAPÍTULO QUINTO

DISPOSICIONES ADICIONALES

Artículo 33 **–** Cualquier resolución dictada por este ayuntamiento o cualquier programa o proyecto emprendido por los órganos o secciones municipales deberán respetar los preceptos contenidos en esta normativa.

El responsable de euskera del ayuntamiento será el encargado de dar a conocer a todos los departamentos y servicios municipales la entrada en vigor de esta normativa, así como de informarles sobre las disposiciones de la misma y de hacerles partícipes de la importancia de la normalización lingüística.

Artículo 34 **–** El ayuntamiento procederá a la revisión de esta Normativa municipal de promoción y uso del euskera a los cinco años de su entrada en vigor. En ese sentido, deberá analizar sus resultados y, si procede, proponer las modificaciones pertinentes.

De todos modos, dicha revisión podrá hacerse antes si se modificarán las leyes generales o si sucedieran cambios en la situación sociolingüística del municipio, o por cualquier otro motivo que resulte de gran trascendencia para el proceso de recuperación y normalización del euskera en el municipio.

CAPÍTULO SEXTO

DISPOSICIÓN DEROGATORIA

Artículo 35 **–** Quedan automáticamente derogadas todas disposiciones o acuerdos del mismo nivel o inferior a esta normativa y todas aquellas que contravengan sus preceptos.

7. ATALBURUA

AZKEN XEDAPENA

36. artikulua **–** Araudi hau indarrean jartzen den unetik Arrigorriagako Udalak eskumena izango du xedapenok ezarri eta garatze aldera beharrezkoak diren arau, erabaki edo egitarau bereziak manatu eta sustatzeko.

CAPÍTULO SÉPTIMO

DISPOSICIÓN FINAL

Artículo 36 **–** Desde el mismo momento de la entrada en vigor de esta normativa, el Ayuntamiento de Arrigorriaga tendrá competencia para ordenar y promover las normas, acuerdos y programas que estime necesarios para la aplicación y desarrollo de la misma.

Eranskinak

1. Apirilaren 15eko 86/1997 Dekretua, Euskal Autonomia Erkidegoko herri-administrazioetan euskararen erabilera normalizatzeko prozesua arautzen duena.
2. EUDELen eta Euskaltzaindiaren arteko hitzarmena, toki erakundeei laguntza teknikoa emateko izen toponimikoen arloan.

Anexos

1. Decreto 86/1997 de 15 de abril, por el que se regula el proceso de normalización del uso del euskera en las administraciones públicas de la Comunidad Autónoma de Euskadi.
2. Convenio entre EUDEL y Euskaltzaindia para la prestación de un servicio de asistencia técnica a los entes locales en materia de denominaciones toponímicas.

.....

OSOKO BILKURAK ONARTUA 2005eko URTARRILAREN 28an.
APROBADA EN PLENO DE FECHA 28 de ENERO de 2005

BAOn 2005eko EKAINAREN 7an argitaratua, 107.zenbakian.
PUBLICADA EN BOB. núm. 107 de fecha 7 de JUNIO de 2005.